



IZENBURUA: Zabaldu zure besoak

KONTROLA: MUSIKA-KOLPEA

SENDAGILEA: Begira, Mikel... ez duzu beste erremediorik... argaldu behar zara.
 MIKEL: Horrek esan nahi al du jateari utzi behar diodala?
 SENDAGILEA: Ez ... ez diozu jateari utzi behar...gutxiago jan behar duzu, eta
 gehiago mugitu behar zara...Lor dezakezuelakoan nago...
 MIKEL: Eta ez didazu sendagairik aginduko?
 SENDAGILEA: Ez da beharrezkoa, Mikel... erremedioa zure eskuetan dago...

KONTROLA: MIKELEN MUSIKA SARTZEN DA

MIKEL: Nire eskuei begiratzen nien ez nuen erremediorik aurkitzen... berriz,
 jateko gogo gehiago nuen...
 AMA: Ezetz, Mikel... jateko gogoari eutsi behar diozula...
 MIKEL: Baina, ama... jateko irrikan nago...
 AMA: Badakit oso gogorra dela zuretzat, baina nire laguntza izango duzu...
 nik lagunduko dizu...
 MIKEL: Nola?
 AMA: Zerbait bururatuko zaigu...

KONTROLA: MIKELEN MUSIKA SARTZEN DA

MIKEL: Auzoko denda batean saltzen dituzten limoizko gailera horietan
 pentsatzean ahogozoa egiten zait....zein gozoak diren!
 AMA: Badakit!... ez dakit nola ez zaidan lehenago bururatu... nire aitonak
 esaten zuen gosea kentzeko gauzarik onena besoak zabaltzea zela...
 MIKEL: Ez dizut ulertzen...
 AMA: Azalduko dizut... la, zabaldu besoak...
 MIKEL: Honela...?
 AMA: Bai, primeran,... orain... hurbildu niregana ahal duzun gehien...
 MIKEL: Honela?
 MAMÁ: Ez... hurbil zaitez gehiago...
 MIKEL: Honela?
 AMA: Primeran!...
 MIKEL: Eta orain, zer egingo dugu?
 AMA: Orain, nik nire besoak zabaltzen ditut eta elkar besarkatuko dugu...
 umh,,, ahhh...BARREAK.
 AMA: Ongi al zaude?
 MIKEL: Bai, ama...primeran...

KONTROLA: MUSIKA-ARGIA SARTZEN DA

AMA: "Besarkadez elikatzen denak gutxiago jaten du" zioen nire aitonak...

ENTZUMENA ETA MINTZAIRA GELA

- MIKEL: Egia izango ote da?
AMA: Hemendik gutxira jakingo dugu... oraingoz, ez duzu limoizko gailetak jateko gogorik, ezta?
MIKEL: Ba...pixka bat, ama... pixka bat...

KONTROLA: BATERIA SARTZEN DA

- MIKEL: Ez nuen ezer galtzen besarkada-terapia delakoa probatzen. Gainera, oso dibertigarria izan liteke. Jateko gogo bizia sentitzen nuen bakoitzean, besarkatzeko norbait aurkitu beharko nuen...
- ELENA: (HASERRE) Mikel... zer duzu?
MIKEL: Gogoak ditut...
ELENA: Zoratu al zara, motel!
MIKEL: Ezzz... utzidazu zu besarkatzen.....
ELENA: (PENTSATZEN) Mikelek maite ote nau eta ez naiz konturatu?
MIKEL: Kito!... eskerrik asko... behar nuen...

KONTROLA: MIKELEN MUSIKA IGOTZEN DA

- MIKEL: Pixkanaka, nire birraitona zuzen zegoela egiaztatu nuen... Besarkadei esker, txokolate eta gaileta gutxiago jan nuen. Sendagilea, berriz, oker zegoen. Berak esan zidan erremedioa nire eskuetan zegoela...eta besarkadetan zegoen!

- BALOREA: Besarkada batek ongi sentiarazten digu egun osoan. Gainera, besarkada batek mina, tristura eta larritasuna arintzen ditu. Besarkadez elikatzen direnek gutxiago jaten omen dute...

Zuri zerk eragiten dizu besarkada batek? Zelan sentitzen zara maite duzun pertsona batek besarkatzean?

